



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Sukarrieta, 2021eko uztailaren 9a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela "**AZTIren nabaritasunari eta posizionamenduari buruzko azterlana**" zerbitzua azpikontratatzeko.

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Proiektua gehienez ere **10 asteko epean** egingo da, kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa da **hogei mila euro (20.000,00€)**, zergak barne hartu gabe.

Fakturazioa zerbitzua amaitzean egingo da, eta faktura jaulki eta 60 egunera ordainduko da.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doitasun teknikoa	%30
Hobekuntzak	%15
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5





MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Irati Velezi aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak ivelez@azti.es helbide elektronikoa eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2021eko abuztuaren 4ko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute informazio tekniko gehigarria jasotzeko:

AZTI

Elena Santa Cruz

Telf. +34 607 698 551

Mail: esantacruz@azti.es

AZTI

Irantzu Zubiaur

Telf. +34 667 174 330

Mail: izubiaur@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Edozein gai gehigarri kontsultatu ahal izango da www.azti.es helbidean argitaratutako Kontratazioaren barne Araudian.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatze eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

9. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

1. AURREKARIAK

AZTIri buruz

AZTI zentro zientifiko eta teknologikoa da, eta inpaktu handiko eraldaketa proiektuak gauzatzen ditu Nazio Batuen 2030 GIHein bat datozen erakundeekin. AZTIren helburua da, hain zuzen, pertsonen etorkizunerako aldaketa positiboa bultzatzea, gizarte osasuntsu, iraunkor eta oso bat lortzen laguntzeko. Itsas ingurunean eta elikaduran espezializatuta dago, eta zientzian zein ikerketa sendoetan oinarritutako abangoardiako eta balio erantsiko produktu eta teknologiak eskaintzen ditu.

40 urteko esperientzia du, eta presentzia dauka 45 herrialdetan. Hiru egoitza ditu EAEn, bai eta 280tik gorako langileko lantaldea ere. Indexatuta egin dituen 1.300 argitalpenek baino gehiagok bermatzen dute AZTIren ibilbide luzea, eta bere bikaintasuna ikertzaileek egiaztatzen dute, horietatik %58 doktoreak baitira.

Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da. Aliantza hori lankidetzaren bidezko lau ikerketa zentrok eta 12 zentro teknologikok osatzen dute, helburua izanik kideen arteko lankidetzaren sustatzea, ezagutza sortzeko eta enpresei transmititzeko baldintzak indartzea, haien lehiakortasunean laguntzeko, eta industria sarea dinamizatzea, euskal gaitasun zientifiko-teknologikoa kanpoan proiektatzeko.

JARDUERA ETA ESPEZIALIZAZIO ARLOAK:

Itsas ingurunean eta elikaduran espezializatua, zientzia eta ikerketa sendoetan oinarritutako abangoardiako eta balio erantsiko produktu eta teknologiak eskaintzen ditu. Horretarako, industria-sarea dinamizatzen duten eta baliabide naturalak berreskuratu eta zaintzen dituzten produktu, zerbitzu eta enpresa-ekimen iraunkorrak garatzen dira.

AZTIk aplikazio-eremu hauetan garatzen du bere jarduerak:

- Oinarri bioteknologikoko produktuak
- Elikagaien segurtasuna eta osotasuna
- Elikadura eta osasuna
- Kontsumitzailearen portaera
- Elikadura-kate eraginkorra eta iraunkorra
- Klima-aldaketa
- Itsasoko ekosistemen funtzionamendua
- Zerbitzu ozeanografiko operazionalak
- Itsasertzaren kudeaketa integratua
- Arrantza-kudeaketa iraunkorra



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

HELBURUA

Gure ametsa gizarte osasuntsu, iraunkor eta osoa lortzen laguntzea da. Gozatu egiten duen gizartea, naturarekin orekan. Gizarte bat, non inpaktu handiko zientziak eta teknologiak pertsonen etorkizunerako aldaketa positiboa bultzatuko duten.

MISIOA

Gure misioa ezagutza sortzea eta transmititzea da, eraldaketa-proiektuak garatuz, Nazio Batuen jasangarritasun-helburuak lortzeko erronka onartzeko prest dauden erakundeekin, aberastasuna sortu eta gizateriaren ongizatea hobetzeko.

BISIOA

2030erako Europako **itsas eta elikaduraren agertokiko** funtsezko aktore bihurtuko gara, eta zientzia eta ikerketa sendoetan oinarritutako abangoardiako eta balio erantsiko produktu eta teknologiak eskainiko ditugu.

BALIOAK

Elkarlaneko berrikuntzak eta berrikuntza eraldatzaileak, balioa sortzeak, errespetuak, gardentasunak, konpromisoak, eraginkortasunak eta jakin-minak bideratzen dute gure kultura.

- **Berrikuntza** sarean, ekipoen artean, eta bezeroekin eta ingurunearekin batera, ideiak konektatzeko eta balioa sortzeko.
- **Enpatia** ikuspuntu guztiekiko, ulertzeko eta eraldatu ahal izateko daukagun gaitasuna handitzeko.
- **Gardentasuna** komunikatzen dugunean, konfiantza eta sinesgarritasuna eraikitzeko.
- **Aniztasuna**, pertsonen etorkizunerako aldaketa positiboa bultzatuz.
- Zientziarekiko **konpromisoa**, gizartearen erronkei irtenbide berritzaileak aurkitzeko.
- **Eraginkortasuna** lanean, ingurune lehiakorra, motibagarria eta bizkorra sortzeko.
- **Jakin-mina**, ezagutzen ez duguna ikasteko eta profesional eta pertsona gisa hazteko.

Une honetan, filiazio berriak (AZTI-BRTA) ibilbide luzea egin ondoren, irismen handiko hainbat ekitalditan parte hartu eta antolatu ondoren, ikerketa bat egin nahi da, **erakundearen irudiari eta posizionamenduari eta lehiarekiko duen balio bereizgarriari buruzko intereseko intsightak lortzeko.**

2. IKERKETAREN HELBURUAK

Helburu nagusia: sektoreko antolakuntzari eta lehiari lotutako publikoen ezaugarriak ikertzea, bai eta pertsonen erakundeaz eta enpresa lehiakideez duten irudi korporatiboa ere. Azken batean, AZTIren publiko, lehia eta marka-irudiari buruzko informazio nahikoa lortzea, publiko desberdinetan sartzeko aukerak zehaztu ahal izateko eta elikagaien eta itsasoaren ikerketaren sektorean lehentasunezko aukera izateko.

- AZTIren berezko eta iradokitako ospea ezagutzea enpresen eta stakeholder-en artean.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- Ezagutza-bideak aztertzea: nola ezagutu gaituzte? Non informatzen dira? (Aldizkari espezializatuak, bideo korporatiboak, proiektuak, sare sozialak, Google, salmenta-sarea, hedabideak)
- Honako gai hauetan sakontzea: zer jarduera lotzen ditu AZTIrekin? Zer atributu eta balio? Zein da haren balio diferentziala?
- Publikoengan posizionatzeko estrategia zehaztea:
 - AZTI bereizten duten ezaugarriak identifikatzea.
 - Aplikazio-eremuetako konpetentzia identifikatzea: lehiakideak zein diren, zein gaitasun dituzten eta negozio-eremu desberdinetan (aplikazio-eremuak) aurre egiteko erakunde-irudiari dagozkion estrategiak zein diren zehaztuta.
 - Konpetentzia nola hautematen eta ebaluatzen den zehaztea (atributu bereizleak eta baliozkoak).
 - AZTIk bere eskumenaren aurrean duen jarrera zehaztea.
 - Nahi den posizionamendua hautatzea eta kudeatzea.
 - Enpresaren egungo egoera aztertzea elikagaien eta itsas ikerketaren sektorean eta AZTIren berezko gaitasunetan.
 - AZTIko ekipoek eta zerbitzuek lehiaren aurrean dituzten onurak definitzea, bezeroen beharrak eta horien bereizketa ezarriz.
 - AZTIk eskainitako zerbitzuen indarra aztertzea, jendearengan lehentasuna lortzeko.
 - AZTIren identitatea definitzen laguntzen duten elementuak ezagutzea eta aztertzea: identitatearen egungo egoera, ezaugarri bereziak definitzen dituzten alderdiak identifikatzea eta erakundearen funtsezko sinesmenak eta balioak ezartzea.
 - Inkestan lortutako datuekin, posizionamenduaren diagnostikoa (indarguneak eta ahuleziak), markaren aukeren matrizea eta publiko desberdinek gomendatutako posizionamendua hobetzeko ekintza-lerroak/-plana definitzea.

3. TARGET/PUBLIKO OBJEKTIBOAK

Erakundearen publikoen azterketa bat egin da barnean. Azterketa horrek aukera ematen du jakiteko zer ezaugarri dituzten, zer komunikazio-helburu dauden target horretara bideratuta eta horietatik zeintzuk diren lehentasunezkoak eta, beraz, zeinetan oinarritzen diren AZTIren ekintzak eta zerbitzuak:

Publikoak	%		Geografikoa	Helburua
Erakundeetako kudeatzaileak eta eragileak. Itsasoko, elikadurako eta ingurumeneko kudeaketa-politikak egiten parte hartzen duten erakundeak, bai eta zientziaren eta ikerketaren arlokoak ere. (Aholkularitzaren eta merkatuaren parte)	25	60	Euskadi	Proiektuak, akordioak, negozio-aukerak lortzea. Posizionamendua (erreferentzia) Dauden aukerak eta lortutako lorpenak erakustea.
		40	Espainia	
Itsasoko eta arrantzako sektorea eta haren balio-kate osoa. Sektore eta azpisektore nagusiak: Arrantza (artisautza, baxura eta altuera), Portuak (interes orokorrekoak eta autonomikoak), Akuikultura (lehorreko eta itsaso zabaleko ekoizpen-sistemak), Energia (offshore garapenak), Garraioa, Aisia eta Turismoa Enpresa	25	60	Euskadi	Dauden aukerak eta lortutako lorpenak erakustea. Bezero berriak erakartzea Bezeroei zabalkundeant laguntzea
		40	Espainia	
Elikagaien eta edariaren sektorea: izaera berritzaile handiko elikagaien industria Sektore eta azpisektore nagusiak: arraina, landare-kontserbak. Alkoholik gabeko edariak. Zukuak eta beste prestakin batzuk, Esnekiak, Janari prestatua, Snack eta aperitiboak, Osagaien industria	25	30	Euskadi	Dauden aukerak eta lortutako lorpenak erakustea. Bezero berriak erakartzea Bezeroei zabalkundeant laguntzea
		70	Espainia	
Komunitate zientifikoa: zentro teknologikoak, unibertsitateak, ikertzaileak, irakasleak... Zerrenda AZTItik ematen dugu	25		Nazioartekoa (Europa)	Ezagutza partekatzea, networkinga indartzea

4. POSIZIONATU BEHARREKO GAITASUNAK

Hiru jarduera-eremu ezartzen dira: Elikadura, arrantza eta itsas ekosistemak. Ereku horietako bakoitzak 3 eta 4 posizionatzeko gaitasun artean ditu, eta batez beste 4 posizionatzeko palanka. Zerrenda enpresa esleipendunari emango zaio.

5. ESTALDURA GEOGRAFIKOA

Hautatutako enpresak **estaldura nazionaleko** ikerketa-planteamendu bat egin beharko du, nazioarteko interes-taldeentzako eskalatua baloratuz.

Komunitate zientifikoaren kasuan, esparrua nazioartekoa izango da, baina AZTIk emandako zerrenda batera mugatuko da.

6. KONTRATATUTAKO ALDERDIAK EGIN BEHARREKO LANAK

Hautatutako enpresak lan-plan bat proposatu beharko du ikerketa inplementatzeko. Horretarako, honako hauek behar dira, gutxienez:

- ✓ Analisiaren unitatearen identifikaziotik abiatuta, **biztanleria edo taldeak identifikatzea ikerketaren parte izango da**, ezarritako muga geografikoak kontuan hartuta.
- ✓ Ikerketaren helburuak ahalik eta gehien betetzeko **metodorik egokiena mugatzea**.
- ✓ **Kontsultatu beharreko azken lagina aukeratzea**: xede-biztanleriaren laginketa onena egitea. Laginaren tamaina kalkulatzeko, egindako inkesta edo elkarrizketa kopurua maximizatzeko moduan.
- ✓ **Egindako inkesten emaitzak modu homogeen biltzea**, ondoren estatistikoki tratatu ahal izateko moduan.
- ✓ Erabilitako metodologiaren analisia eta **emaitzen txostena** egitea.

Kontratutako enpresak **ikerketarako materialak diseinatu, banatu eta bildu beharko ditu**, eta **diseinu-estrategiari buruzko hobekuntza teknikoak** proposatu ahal izango ditu, ikerketa-lanari funtsezko onura ekarriko lioketela iritziz gero.

Bete beharreko beste baldintza batzuk hauek dira:

- Kontratutako alderdiak ezin izango du garatutako ikerketa erabili edo ustiatu barne-erabilerarako, hirugarrenei zerbitzuak emateko edo beste edozein ustategitarako. Kontratutako alderdiak ezin izango du garatutakoaren ondoriozko ikerketarik sortu, ezta teknikoki hobetu ere.
- Kontratutako alderdiak informazio partekatuaren, lizitazio honen xede den kontratuaren eta kontratatzailearen eta garatutako sistemaren interesak kaltetu ditzakeen beste edozein informazioren konfidentzialtasuna bermatu beharko du.
- Kontratutako alderdia planteamendua behar bezala definitzeko proiektu-taldeak beharrezkotzat jotzen dituen bileretara joango da.

10. BALDINTZA TEKNIKOAK

Hautatutako enpresak antzeko ezaugarriak dituzten **azterlanak diseinatu, garatu eta egiten duen esperientzia** egiaztatu beharko du, eta **metodologia kuantitatiboa, kualitatiboa edo konbinatua** planteatu ahal izango da, kontsultatu beharreko targets-en eta planteamenduaren irismenaren arabera.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE
